

Merkatuaren segmentazioa

Aurretik esan bezala, guk proiektu hau martxan jarri aurretik, argi izan genuen sozialki arazoak zituztenei laguntza eskeintzeko zerbait egin nahi genuela, hori dela eta, gure proiektua horri zuzenduta dago.

Sozialki arazoak dituztenak esaten dugunean, bakarrik sentitzen direnak, kanpotik etorri eta lagunak egin nahi dituztenak, denboraldi txarra izaten daudenak, laguntza behar dutenak... Ala ere, esan bezala, edozein publikori atea irekita ditugu eta edozein ekintzetan parte hartzeko aukera eta laguntza eskeintzeko aukera izango dute, gainera arlo horretako profesionalak eta hauen gaitasunak eta laguntzak beti ongietorriak izango dira.

Gure lokalean, chill out bezalako zonaldeak ere baditugunez, bertan lasai egon nahi duenak, bakardadean momentuak izan nahi dituenak... aukera izango du etorri eta eskeintzen duguna aprobetxatu ahal izateko.

Tabernako inguruan, kafetegi bat dugula kontuan izanda, alergiak edo intolerantziak dituzten pertsonak ere kontuan izan beharko ditugu. Esnari dagokionez, esne erdi-gainbetua, laktosa gabeko esnea eta sojazko esnea izango dugu, izan ere, intolerantziak dituzten jendea edo animalitik datorren esnea edaten ez duen jendeari ez dizkiogu nahi aterik itxi eta gainera beti gure bezeroenganaekiko zuzenduta egongo denez aukera guztiak edo ahal ditugunak eskura izan beharko ditugu. Nahiz eta gero eta ohikoagoa izan, gaur egun oraindik jende gutxi dago horrelako esneak hartzen dituenak, intolerantzia gain gehiago gustatzen zaizkielako, eta leku askotan horrelako esnea pasatuta egoten da bezero batetik bestera dagoen denbora luzeegia izan delako eta tetrabrika irekita egon delako. Hori gerta ez dadin, tamaina txikiagoko tetrabrikak (200ml) erosiko ditugu esnea galdu ez dezan.

Horrez gain, animalia jatorria duten elikagaiak jaten ez duen jendea ere badagoenez, animalitik datorren elikagairik ez dituzten pintxoak ere eskuragarri egongo dira. Gainera, bezeroren batek alerjiaren bat badu, esateko aukera izango du eta berari zuzendutako beste pintxo edo janariren bat eskeini ahalko diogu.